- Abelntzaintza eta arrantzari ematen zaien diru languntzak kendu, aldi berean ekintza hauetatik nekazaritzara edota animalien uztiapena ekartzen duten negozioetara egiteko trantzizioa errazten, zeintzuei lagundu egingo diegu.

- [Euskal Baserri](#) zigilua duten produktuen promozioa.

- Protuktu hortofrutikolen gordeketa eta mantenketa egiteko laguntza neurriak, Diputazioekin elkarlanean.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

- Nekazariak ekoiztutako produktuen komertzializazioan gardentasun handiagoa, prosezuan sektorearen partaidetza maila handituz.
- Nekazal uztiapenetan aplikazio informatikoen sarrera, software askeari atentzio berezia jarritz.
- Gazte, emakume eta miusbaliotasunak dituzten pertsonak nekazal munduan sartzea ahalbideratzen duten neurriak.

19. Kalitatezko turismo etiko baten defentza. PACMA - Alderdi Animalistatik Euskal Herriak kalitatezko turismo bat sustatzeko nahiko baliabide dituela uzte dugu, Diputazioekin elkarlanean. Horregaitik, hurrengoko neurriak defendatzen ditugu:

- Plan turistikoak egiterakoan animalien defentzan lan egiten duten erakundeen parte hartzea.
- Eusko Jarlaritzan partetik egiten diren gida eta material turistikoak egiterakoan kriterio etikoen sarrera, animalien kalterako diren neurriak bultzatzen ez direlarik.
- Zinea, musika, dantza, antzerki, eta abarren jaialdien promozioa.
- Gazte etxeak ezkontzen dituzten zerbitzuen edapena.

20. Helburu etiko eta sozial duen I+B+g-a bultzatu. I+B+g-an egiten den gastua sustatzen dute duten politikak defendatzen ditugu, urrengoko legealdian Euskal Herriko Barne Protuktuan %3a lortzearen helburuarekin, nahi kolektiboak lortzeko bideratuta egon behar dela kontutan izanik eta animalien interesak errespetatu behar dituztela kontutan izanik. Animalien defentzaren esparruan, ikerketa proiektu batzuek animalia jatorri duten produktuen ordezkioak sortzeko helburua izango dute.

21. Langileen animalientzako babes-etxeak. Animalien zaintza eta lana kontzilatzeke helburuaz, Eusko Jaurlaritzaren langileentzako txakur-zaintza zerbitzu bat egongo da haun lan orduetan, non txakurrak zainduak, ikuskatutak eta beste txakurren konpainian egongo diren, lanaren ezaugarriek txakurra zaintzalarerearekin ezin egona ekartzen badute. Modu berean enpresen eta Gobernuaren artean hitzarmenak egingo dira, enpresek txakurrekin bizi diren langileek txakur-zaintza erabiltzeko duten eskubidea izateko helburuarekin.

22. Animalia jatorririk gabeko ehunak ezkatzeke bermea uniformeak erabili behar dituzten langile eta funtzionarioentzako. Neurri honek herritar guztiek ez badute nahi animalia jatorri duten produktuak ez erabiltzeko edota ez erosteko duten eskubidea bermatzeko da.

23. Lanbide eraginkorra. Gaur egun, Lanbidek enplegua sortzeko gaiasun eza erakusten du. Horregaitik, aldaketa sakon bat egin behar dela uzte dugu, enplegua sortzeko politika aktiboei lehentasuna emanez, eta diru--laguntza sozialak jasotzen dituzten herritarren diru-laguntza eta herritar hauen enpleguaren aktibazioarekin erlazionatuz. Langabezi maila altuago duten zonaldeetarako enplegu plan zehatzak sortzea beharrezkoa da ere.

24. Herstura neurriak, animaliak erabiltzen dituzten ikuskizunei ematen zaien diru-laguntzekin amaitu eta politikoen abaintalekin amaitzen dutenak. Gaur egungo krisi egoeran, zezenketei diru laguntzak emateko edota eroste maila euskal herritarrena baina askoz altuago duten kargu altuak mantetzen dirua zahutzen ikustea onartezina da. Politikoei oinak lurrean jarriko

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

diegu errealitatea bestelako herritarren moduan bizi dezaten. herstura neurri hauk defendatzen ditugu, Euskal Herrian miloika euroko hurrezpena suposatuko lituzkenak:

- Eusko Jaurlaritzen kontuendako kanpoko auditoria independente bat egitea.
- Zezenketendako edota animaliek erabiltzen duten edozein ikuskisunendako diru-laguntzak kentzea.
- Eusko Jaurlaritzako diputatuen, aholkularien eta kargu altuen soldataren murrizketa %50 baten.
- Gehigarri retitutiboan ezabaketa Eusko Jaurlaritzako kargu altu ohi guztiendako, Lehendakariak barne.
- Desagertzeko kideak Vitoria bizi dietak.
- Aholkulariak eta kargu altuak trenean edo abioian garraiotu behar direnean lan kontuengatik, klase turistan egingo dute beti (low cost konpainietan al izan ezker, eta gehienez aholkulari bakar batekin).
- Parque movil-aren adoste plana. Soilik Lehendakariak eta aholkulariek beraien kotxea izatea defendatzen dugu, eta hauek alkilatua izango dira, eta ez erosiak. Eusko jaurlaritzak duen gainontzeko kotxeak subasta publiko baten salduko dira.
- Beste diputuekin alderatuta Jaurlaritzako Mahaiko kideen soldata desberdintasunaren ezabaketa.
- Talde parlamentariari ematen zaien dirua %50ean murriztea.
- Eusko Jaurlaritzak modu askean erabakitzen dituzten aholkulariak bi herenetan murriztea.
- Eusko Jarlaritzan diputatu moduan lan egitea zortzi urte gehienez egotea, bezero sareak eta fabore tratua zahiezteko era moduan.
- Publizitate kanpaina instituzionalan erabiltzen den aurrekontua erdira murriztea (gaur egun urtero 50.000 euro erabiltzen dira).
- Diputazio Faralekin bikoiztasunak zahieztea. 2011. urteko "Eusko Administrazio Publikoen Bizkoiztasun Txostena"-ren arabera, Euko Jaurlaritzari egozten zaien bikoiztasunak 118,8 miloi eurokoak ziren, zeintzuetatik 2012. urtean %42,4 eragotzi diren soilik. Bikoiztasun guztiekin amaitzea defendatzen dugu, urtero miloika euro hurrezteko helburuarekin eta baliabideen efizientzia handiago bat lortzeko.

25. Iruzurraren kontra borrokatu. Dirua zuritzearen, iruzurraren, paradisu fiskaletara dirua eramatearen, eta abarren kontra borrokatzeko plan baten eraketa defendatzen dugu. Paradisu fiskalekin erlazioa duten enpresek ezingo dute kontratu publikoetan parte hartu.

26. Diru-laguntza sozialen mantenketan. Gehien behar dutenei krisiaren eragina murrizten dituzten neurriak hartzea defendatzen dugu, aukera bertintasuna bermatzen. Familiei eta umeei laguntzeko dagoen modelo sozialaren berrikuspenarengaitik apostu egiten dugu, serbitzuen koberturan zentratuta egon behar delarik, dirua umeen beharrak azetzeko erabiliak izango direla

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

bermatzeko neurri moduan, gurasoen partetik iruzurrak eragotziz. Aldi berean, honelako neurriak defendatzen ditugu:

- Renta de Garantía de Ingresos-en mantentzea. Gaur egun Renta de Garantía de Ingresos-a lanik ez duten milaka euskal herritarren aukera bakarra da pobrezia egoera baten amaitzeko zahizteko. Honegaitik Eusko Jaurlaritzak aurtendako adostutako diru kopuruaren murrizketak arduratzen gaitu, eta diru kopuru hori berriz ere lan soldata minimoaren %88a izatea defendatzen dugu (2012. urtean 564,43 euro izango zirelarik)

27. Minusbaliotasunen bat duten pertsonen lan egiteko eskubidea. Nahiz eta minusbaliotasunak dituzten pertsonen integrazioa Diputazio Foralen kompetentzia den, Eusko Jaurlaritzak minusbalitasun fisiko edo intelektualak dituzten pertsonen integrazioa bultzatzen dituzten neurriak hartu ditzake, hurrengoko hauen modukoak:

- Minusbaliotasunak dituzten pertsonen lanerako sarbideari buruzko aholkularitza.
- Inspekzioak gehitzea, 50 langile baino gehiago dituzten enpresetan gutxienez minusbaliotasunen bat duten pertsonendako lanpostuen %2a gordetzeko helburuarekin.
- %2 horren kuota betetzen ez duten enpresek diru laguntzak jasotzea debekatzea.
- Hezi arkitektonikoen ezabaketa lantzen duen normatiba betetzen delaren ikuskaritza, Eusko Jaurlaritza izanik bere eraikinetan normatiba hau betetzen duen lehena.
- Minusbaliotasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten ONG (Gobernuz Kanpoko Erakundeak), hauek lan munduan sartzeko bideak aholkatu ditzaten.
- Eusko Jaurlaritzako langileen artean Seinuen Lenguaien Itzulatzileak izate.
- Telebista autonomikoetan Komunikazio Audiobisualaren Legean jasotako portzentai altuagoak ezartzea defendatzen dugu, aste baten publikoak dire kataietan audiodeskripzioa, seinu lenguaia eta subtutuluak dituzten programen duten ordu kopurua ezartzen duena.

28. Kutxabank. Kutxabank-en sorrera modu guztiz iruzurgarrian egin dela deritzogu, PNV eta PPren arteko akordio batekin, administrazio kontseilua sortzen duten 15 kideetatik 14 banatzeko. Kutxabanke jarraitzen dituen politiken norabide aldaketa ezkatzen dugu, horretarako alderdi gutxi batzuek bankuarekiko duten kontrolarekin amaitzea ezkatzen duelarik, eta obra sozialetari interes berezi bat bideratzea, eta honen barruan, animalien defentzari.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

OSAUN ONA IZATEKO ESKUBIDEA

Osasunaren arloan aplikatzen ari diren murrizketek kalte egiten diete euskal herritarrei. Osasunaren Mundu Erakundearen (OMS) Konstituzioak dioenez: *“El goce del grado máximo de salud que se pueda lograr es uno de los derechos fundamentales de todo ser humano sin distinción de raza, religión, ideología política o condición económica o social”*. Hori da osasuna izateko eskubidea jotzen duguna. Eskubide horren barruan sartzen dira medikuaren zaintza, eta sasoian egoteko oinarrizko baldintzak, esate baterako edateko moduko ura, jaki egokiak, instalazio garbiak eta aterpea. PACMA Alderdi Animalista osasun publikoa behar bezala erabiltzearen alde dago, animalia guzti-guztiek, gizakiek barne, izan dezaten osasun ona izateko eskubidea. Horregatik, osasun publikoa larri kaltetzen ari diren murrizketa horien kontra gaude gu. Hona hemen gure proposamen batzuk:

29. Animaliek eskubidea dute osasun ona izateko. Animalia guztiek daukate eskubidea norbaitek beren osasunaz ardura har dezan. Horregatik, apurka-apurka animalientzako osasun-sistema ezartzearen aldekoak gara; batez ere, animalien babesleku eta aterpeak hobetu eta zaindu nahi ditugu.

30. Animaliak ospitaletako leku batzuetan sar daitezela. Gaur egun erabat galarazita dago ospitalean dauden gaixoek beren animalien bisitak izatea. Jakinda gaixo batzuk oso luze egoten direla ospitalean, elkar ezin ikusia oso gogorra da bai gaixo dagoenarentzat bai bere animalia lagunarentzat ere. Osasunaren inguruko arazoak jartzen dira animaliak ez sartzen uzteko aitzakiatzat, alabaina, gizakiak sartu sartzen dira, eta inongo kontrol sanitariorik gabe. Egoera horri konponbidea emateko, ospitaleetan gaixoak beren animaliekin elkartzeko gelak jartzea eskatzen dugu, horretarakoxe egokitutako lekuetan bil daitezten lagunak, beharrezko osasun-neurriak beteta eta kalterik egin gabe.

31. Animalia-jatorriko jakirik gabeko elikadura ospitaletan. Herritarrok kontzientzia-askatasuna daukagunez, aukera eduki beharko genuke, halaber, animalia-jatorriko jakirik gabeko menua izateko ospitale guztietan; jakina, nutrizionistek eta nutrizioko teknikariek diseinatutako menuak lirarteke, elikadura osasungarria dela ziurtatzeko.

32. Nutrizionista plazetarako deialdiak egitea, ospitale nahiz osasun-zentroetan. Gaur egun, elikaduraren inguruko aholkularitza mediku endokrinoek edo familiako medikuek eramaten dute, eta gehienek ez dute elikaduraren arloko prestakuntza egokia. Hori dela-eta, askotan, okerreko informazioa ematen dute animalia-jatorriko jakirik gabeko elikadurari buruz. Halakorik ez gertatzeko eta elikadura egokia zer den ondo adierazten dela ziurtatzeko, Euskadiko ospitale nahiz osasun-zentroetarako nutrizionisten plazak ateratzearen alde egingo dugu, Nutrizioko unibertsitate-tituludunentzat.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

33. Kalitate oneko osasun publikoa izateko eskubidea. Osasun-sistema publikoa zabaltzea funtsezkoa da guretzat, gizaki nahiz bestelako animalien eskubidea bermatzeko tresna horixe baita. Gainera, gaur egungo egoera ekonomikoa dela-eta, adineko askoren bizi-kalitatea asko okertu da, baina horri ez zaio behar bezala erreparatzean. Baina denetarik dago pertsona nagusien multzo horretan, oso mutzo heterogenoa da, eta halaxe jokatu behar genuke, batez ere osasun kontuetan, aintzat hartuta batzuk autonomo direla baina beste batzuk, beren gaixotasunagatik, inoren laguntza beharrean daudela beti, edozertarako. Neurri hauek ezarriko ditugu guk:

- Kontsulta, diagnostiko-proba eta ebakuntzetarako zain-zerrendak murriztea.
- Beste mediku espezialista baten iritzia jasotzeko eskubidea osasun-zentro publikoetan.
- Ohea jartzea ospitaleko gaixoen bisitan joaten direnentzat.
- Buruko osasunerako zerbitzuak zabaltzea, eta buruko gaixotasunen bat dutenen senideei laguntza ematea. Arazo psikologikoak garaiz kontrolatu behar dira, gizakien edo animalien kontrako kalteak eragin aurretik.
- Edadetuentzako, ezinduentzako eta gizartetik baztertuentzako egoitzetan behar adina leku egotea. Egoitza horietan, bertan daudenak animaliekin bizitzeko aukera izango dute, bai egoitza publikoetan bai Aldundiarekin hitzarmena sinatuta daukaten egoitza pribatuetan. Ezinbestekoa da egoitza publikoetan sartu ahal izateko ezartzen diren irizpideak bateratzea, premia handiagoa dutenek erraztasun handiago aizan dezaten.

34. Lanean osasun ona izateko eskubidea. Lanpostu guzti-guztietan, segurtasun- eta osasun-baldintza behar bezala betetzen direla ziurtatu behar da. Lan-arriskuen prebentzioko batzordeetako delegatuek eta kideek eskumen handiagoak izatearen alde egingo dugu, eta horren inguruko konturen batengatik zehapena jaso duten enpresen erregistroa osatuko dugu.

35. Egoitza-baimenik eta lanik ez duten etorkinek ere osasun-arreta izango dute. PP alderdiak egoitza-baimenik eta lanik ez duten etorkinak osasun-sistematik kanpo uzteko hartu duen erabakiak kinka larrian utzi ditu Euskadin bizi diren 15.000 lagun. PACMA Alderdi Animalistak inongo arrazoirik gabe baztertua dauden denak defenditzen ditu, eta denek osasun ona izateko eskubidea dutela aldarrikatzen du. Printzipio hori gidarizat hartuta, etorkinak aurrerantzean ere arreta izango dute Euskadiko osasun-zentroetan, orain arte bezalaxe. Eusko Jaurlaritzak esan du etorkin bat bera ere ez dela osasun-zaintzarik gabe geratuko, baina ez dugu sinisten. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, 2011ko irailean, zirkularra bidali zien medikuei esanez dokumenturik gabeko etorkinek ezin dutela jaso "osasun-zaintzarik jaso". Are gehiago, oso larriak iruditzen zaizkigu PPko hautagai Antonio Basagoiti jaunak esandakoak; aurten argitaratutako artikulua batean honakoa adierazi baitzuen "denentzako osasun-zerbitzua, baina, aurrena, etxekoentzat". Adierazpen horiek ametitu ezinak dira, xenofobia indartzeko besterik ez dute balio-eta.

PARTIDO ANIMALISTA ***pacma***

DEMOKRAZIA PARTE-HARTZAILEA ETA ESKUBIDE ZIBILAK

PACMA Alderdi Animalistakook uste dugu herritarren parte-hartzea ez dela soilik lau urtean behin botoa ematea. Denoi eragiten diguten kontuetan erabakia hartu ahal izatea gero eta herritar gehiagok aldarrikatzen dugu. Elkarte-sarea indartu behar dugu, eta kontsultak erabili behar ditugu herritarrok erabakiak hartzeko, horrek eramango gaitu benetan erabakitan parte hartzera, eta horixe da, izan, Zuzenbideko Estatuaren funtsa; herritarren parte-hartzerik gabe halako Estaturik ez da. Esanda bezala, erabakiak hartzerakoak herritarrek zuzenean ahalmena izatearen aldeko gara.

Demokrazia parte-hartzailea izango bada benetan, eragile sozialek horretarako gogoia izan behar dute, eta gizarte zibila indartu eta elkarte eta sareak bultzatu. Esfera publikoko maila guztietan parte-hartzeko moduak eta gaitasunak lantzeko mekanismoak jarri behar dira. Horretarako, herri-administrazioen egitura eta funtzionamendua aldatu behar da, ezinbestekoa da, gaur egungo legeek informazioa, gardentasuna eta parte-hartzea eragozten duten arauak ezartzen baitituzte.

Printzipio horrekin bat, PACMA Alderdi Animalistako hautagaiek jendaurrean agerian jarriko dute beren ondarea, beren agintaldia hasi aurretik, agintaldian zehar eta ondoren, bai eta berenak dituzten errenta, inbertsio eta bestelako jarduera ekonomiko ere. Gardentasuna hori da, eta gainerako aukera politikoek ere guk bezala jokatu behar lukete horretan.

36. Hauteskunde-legea erreformatu. Gaur egun Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundearen Legeak alderdi handiei mesede egiten die, alderdi txikien kaltetan, ordezkari gabeko alderdien botoei balioa kenduta. Herritarren ordezkari justua bideratzen duen eta premiazko gastuak ez direnak kentzen dituen hauteskunde-legearen aldeko gara gu. Hauxe defenditzen dugu:

- Proporziozko hauteskunde-legea bultzatzea, ordezkari lortu ahal izateko % 3ko hautesle-kopurua kenduta. Izan ere, hori izugarrizko kaltea da alderdi askorentzat eta boto-emaille askorentzat. Mugako kopuru hori jartzea ez da ezinbestekoa; hauteskunde europarretan, adibidez, ez da aplikatzen.

- Komunikabide publikoetara jotzeko aukera berdintasuna. Alderdi hauteskundeetara berdindin agertzeko eskubidea dutenez, denek baldintza berdinak izan behar lituzkete komunikabideetan: denbora berdina hauteskundetarako bideoak jartzeko eta abar hiru probientzietan.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

- Boto zuri zenbagarria. Boto zuriak ere zenbatu behar lirateke eserlekuak emateko, hala, hutsik geratuko dira boto zuri horiei dagozkien lekuak, eta agerikoa egingo da inongo alderdi politikorekin identifikatzen ez direnak ere badaudela.

37. Demokrazia parte-hartzailea. Demokrazia ez da lau urtean behin botoa ematea. Horren aldean demokrazia askoz parte-hartzaileagoa bultzatuko dugu guk, teknologia berriak erabilia. Neurri hauen alde egingo dugu:

- Gizartean iritzi oso aldenduak daudenetan, erreferendum lotesleak egingo ditugu.

- Herritarren Lege Ekimenak aurkezteko erraztasunak emango ditugu. Gaur egun, 30.000 sinadura behar dira halako Ekimenek ordezkari izan dezaten Euskadin. Gizarte parte-hartzaileagoa nahi badugu, uste dugu kopuru hori jaitsi egin beharko litzatekeela, erdira: 15.000 sinadura nahiko izango lirateke.

- Herritarrei informazioa emateko sistemak eta herri-administrazioan izapideak antolatzerakoan, denen eskura egoteko modukoak izan behar dutela hartu behar da gogoan beti, eta diseinuak ere denentzako modukoa izan behar du (web-orriak eta horien bitartez ematen diren zerbitzuak, informazio elektronikoko guneak eta abar).

38. Elkarrean mugimenduaren alde. Elkarrean herritarrek gizartean parte hartzeko tresna dira. Euskadin jardungo diren elkarrean osatzeko tramiteak erraztuko ditugu. Eusko Jaurlaritzako web orrian agertzeko lekua egingo zaie.

39. Gardentasun politikoaren alde. Askoz gehiago kontrolatu behar dira politikoen ondarea eta jarduna; are gehiago, tauromakiaren alde ematen diren diru-laguntzen kasuan, Kultura eta Hirigintza saileko jardunen barruan "mozorrotuta" ematen baitira asko. Funts publikoak zertan gastatzen diren jakiteko balio duten neurri guztiak hartuko ditugu. Aurrekontuen partidek argi eta garbia gertu behar dute Eusko Jaurlaritzaren orrian.

Halaber, uste dugu hauteskunde garaiko gastuak askoz gehiago kontrolatu eta fiskalizatu behar litzatekeela Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, legea benetan zorrotz betetzen dela egiaztatzeko.

40. Euskara erabiltzearen alde. Gaztelan bezalaxe, administrazioarekiko edozein komunikazioetan euskara erabili nahi dutenek euskaraz egitea bermatuta edukiko dute.

41. Ertzaintzak gomazko pilotak erabiltzeari utzi behar dio. PACMA Alderdi Animalista bene-benetan saminduta dago Iñigo Cabacas herritarra hile gin zelako, Ertzaintzak jaurtitako pilota baten talkagatik. Gertakari ilun horren nondik norakoak argitzeko egin beharrekoak egin daitezela eskatzen dugu, eta beste heriotzarik ez dadila gertatu. Ertzaintzaren barruan ikerketa egin behar da, erantzukizuna norena den argitzeko.

Halaber, onartu ezina ikusten dugu Eusko Jaurlaritzak kontu honetan izan duen jarrera. Rodolfo Ares jaunak berehalakoan dimititu behar zuen, bera delako Herrizaingo Saileko arduradun nagusi. PP eta UPyD alderdiekin egin da lagun PSE, haiek bezala ez du nahi erantzule nor den argitzerik nahi, abian den epaiketa-prozesuaz gain. Gainera, gaur egun ez da ezertan aldatu Ertzaintzak gomazko pilotak erabiltzekoa, eta 2013. urtetik aurrera, Brigada Mugikorrek eta Errefuertzuko Brigadak pilotak erabiltzen jarraituko dute.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

ETXEBIZITZA, ETA LURRALDE POLITIKA

Etxebizitza da euskal herritar askoren kezka nagusia. Azken urteotan etheen prezioak behera egin badu ere, higiezinaren burbuila dela-eta, izugarri prezio altuak dira oraindik ere. Halaber, krisi ekonomikoaren ondoren, bankuek asko zorrotu dituzte maileguak emateko baldintzak. Eta Euskadin ez denez behin ere ohiturarik egon etxea alokatzeko, eta alokairua ere oso altua denez, ikusten dugu egoera ezin dela jasan. Herritar gehienek soldata gehien-gehiena hipoteka edo alokairua ordaintzeko jarri behar dute. Horregatik, azken urteotan gero eta indar handiagoa ari da hartzen etxebizitza duina izateko eskubidea benetan gauzatzeko aldarrikatzen duen mugimendua, eta guk bat egiten dugu mugimendu horrekin. Etxebizitzaren arazoa Estatuaren eskumena bada ere, Euskadiko administrazioak badauka neurriren bat hartzerik arazo hori konpontzen laguntzeko. Halaber, etxebizitza duina izateko eskubidea gizakiaz besteko animaliek ere eduki behar lukete, haiek ere behar dute-eta etxea.

42. Arkitektoek animalien babeslekuei aholkularitza ematea. Babeslekuetan dauden animalien bizi-kalitatea ona izateko, osasunerako arriskuak saihesteko, eta energia alferrik ez erabiltzeko, arkitektoek osatutako aholkularitza-zerbitzua jarriko dugu babeslekuen esku.

43. Hegaztien eraikinen kontra kolperik ez hartzeko neurriak hartu eta finantzatu. Milaka hegazti kolpatzen dira urtero eraikinetako leihoen kontra, baina erraz ebitatzeko moduko arazoa d a hori, sarekak edo pegatinak jarrita; hainbat herrialdetan dagoeneko egiten dute hori. Hegaztien migrazio-bideei buruzko informazioa zabalduko dugu, eta, horren arabera, argiak itzaliko dira eguneko garai jakin batzuetan (New Yorken egiten dute hau dagoeneko).

44. Etxebizitza duina izateko eskubidea. Etxea alokatzeko erraztasuna ematen duten neurrien aldeko gara. Horretarako, aholku emateko zerbitzua publikoa jarriko dugu, jabeak eta errentariak lotzeko.

Halaber, alokatzeko babes ofizialeko eskaintza handiagoaren alde gaude. Babes ofiziala etxea izateko aukera bakarra izan da herritar askorentzat urte askoan. Alabaina, gaur egun, etxeak oraindik ere garestiegi dira. Gaur egun babes ofizialeko etxebizitzetarako erabiltzen diren neurriek ez dute funtzionatzen, ez dute balio egoera konpontzeko. Horren ondorioz, eta babes ofizialeko etxerik ez dadin erabili espekulaziorako, babes ofizialeko etxebizitza guztiak alokatzeko eman daitezela aldarrikatzen dugu guk, eta errentariak beste inori alokatzerik ez izatea. Halaber, alokairuan daudenek ziurtatuta edukiko dute animaliekin bizitzeko eskubidea.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

Bankuek eta kutxek ere itxurazko prezioan jarri behar dituzte saltzeko edo alokatzeko beren esku dituzten babes ofizialeko etxeak, eta Eusko Jaurlaritzak etxebizitzak kentzeko eskubidea izango du ikusiz gero hori ez dutela betetzen. Neurri hori, Andaluziako Arartekoak ere bultzatzen duena, arazorik gabe aplika daiteke gaur egungo legislazioaren barruan. Babes ofizialeko etxeetan herritar guztion dirua inbertitu denez, onartezina da bankuen esku egotea etxebizitza horiek, are gehiago une honetan, zapuztu egiten duelako jabetzaren funtzio soziala. Babes ofizialen funtsaz era da, diru premia daukaten egoitza izatea, ez banku eta aurrezki-kutxen baliabide izatea, espekulazioan jarduteko.

Horretarako, gaur egun banku eta kutxen esku dauden Babes Ofizialeko Etxebizitzen Inbentarioa presta dadila nahi dugu.

45. Kooperatibismoa bultzatu etxebizitzak eraikitzeke. Etxebizitzen kooperatibek egiten duten lanaren aldeko gara, aukera ematen dutelako etxeak askoz merkeago lortzeko. Horregatik, Euskadin dagoeneko lanean dabiltzan etxebizitza-kooperatiben arteko koordinazioa bultzatuko dugu, eta kooperatiboi bultzada emango diegu.

46. Hiri irisgarriaren alde. Zirkulazio eta irisgarritasuna ziurtatuta egoteko aldera, honako neurri hauek aplikatuko ditugu:

- Ikusteko oztoporen bat dutenak hara-hona animaliarik gabe ibiltzeko aukera ematen duten gailuak erosten lagunduko dugu: GPS, boluntarioak eta abar.

- Oztopo arkitektonikoak kenduko ditugu, garraiobide publikoetara sartu eta irteteko erraztasunak jarriko ditugu, eta lan-jarduneko garaian lantokiaren inguruan aparkaleku nahikoa jarriko dugu.

- Auditoria prestatuko dugu eraikin publikoek bete behar dituzten irisgarritasun-baldintzak benetan betetzen diren ikusteko.

- Etxebizitza egokituen erreserbako etxeen portzentajea ezarri, ezintasunen bat daukatenentzat irisgarriago izateko.

- Garraio jasangarria bultzatuko dugu, Irisgarritasunaren Legea oinarri hartuta, eta gero eta garraio-ildo gehiago jarrita.

- Irisgarritasunari buruzko gaietan prestakuntza ematea oztopo arkitektonikoak ezabatzen eta eraikin berriak egiten dabiltzan eragile guztiei.

47. Lurralde-politikaren inguruko informazioa eskuratzea. Informazioa eskuratu ahal izatearen aldekoak gara, herritarrei Lurralde Antolamendu eta Plangintzako instrumentuak prestatu, aldatu eta errebisatzeko aukera emanda.

48. Plangintza hidrológicoak hornikuntzako azpiegiturak hobetze, araztea eta gardentasuna bultzatu behar ditu. Lurralde-antolamenduko politiken barruan, urak berebiziko garrantzia izan behar du. Planifikazio hidrológicoak azpiegiturak hobetu behar ditu, Euskadiko lurralde guztietan arazketa bermatu behar du eta denon onura den ondasun honen kudeaketa nola eramaten den garden erakutsi behar da. Honako neurri hauek ezarriko ditugu:

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

- Uraren kultura berrian oinarritutako politika hidrolögikoa bultzatuko dugu, eskaria behar bezala kudeatzea izanik lanaren muina, eta ez eskaintza mugagabea gero eta gehiago handitzea.
- Euskadiko herritarren % 100ak edateko ura izango duela bermatzeko programa abiaraztea.
- Lurpeko ura antolatzeko programa prestatzea.

DENENTZAKO GARRAIOA

[Urtero-urtero, hogeita hamar milioi ornodun baino gehiago harrapatzen dituzte ibilgailuek errepidean.](#) Halaber, ibilgailu gehiegi egotea, eta horrek dakarren kutsadura, oso kaltegarriak dira bai gizakiontzat bai gainerako animalientzat. Gure garraio-politikaren barruan, errepidean hainbeste ibilgailu ez egotea lortu nahi dugu, eta herritar guztiek bete dezatela batetik bestera joateko eskubidea, edozein egoera ekonomikotan dagoela ere. Horregatik, garraio publikoaren aldeko apustua egiten dugu argi eta garbi. Honako neurri hauek hartuko ditugu:

49. Garraiobideetara sartzeko diskriminazioaren aurka. Gizarte justuagoa eraiki nahian gabiltzanez, garraiobideetara sartzeko diskriminazio ororen kontra gaude. Horregatik, herritarrak garraio publikoetan beren txakur eta guzti ibiltzearen alde egingo dugu.

50. Garraio publikoaren alde eta motorrik gabeko ibilgailuen alde. Euskadiko errepideetan animalia gutxiago hiltzeko eta herritar guztiek izateko garraiobideetan ibiltzeko, nagusiki garraio publikoan oinarritutako garraio-sistemaren aldekoak gara (batez ere, trenbidearen aldekoak), eta motorrik gabeko ibilgailu gehiago ibiltzearen aldekoak; aldiz, gaur egungo eredia baztertu nahi dugu, eguneroko kontueterako kotxez bide luzeak egitera behartzen baikaitu. Euskadin badaukagu gauza berezi bat kontu honetan: errepideen gaineko eskumena Foru Aldundiek daukate, trenbideena, berriz, Eusko Jaurlaritzak. Horregatik, askoz diru gehiago jasotzen dute errepideek trenbideek baino, aldundiek inbertsioetarako askoz aurrekontu handiagoa dutelako. Horregatik, gure ustez, organismo bakar batek eduki behar lituzke errepideen eta trenbideen gaineko eskumenak. Garraio publikoaren alde egiten dugun ahaleginaz bat, horixe diogu: Foru Aldundiek hartu behar luketela trenbideen gaineko eskumena. Honakoa ere defenditzen dugu:

- Metroaren sarea eta tranbiaren zerbitzua zabaltzea.
- Bizikleta eta garraio publikoa konbinatuta erabiltzea, eta ziurtatzea bizikleta garraio publikoetara sartzen utziko dela, gainerako erabiltzaileei kalterik egiten ez zaien heinean.
- 2012 – 2016 epea garraio-sareko tarifak izoztea.
- Billete Bakarra jartzea Euskadiko garraio-sarean, hilabeteko txartela eta baliabiderik gabeko prezio murriztu eta guzti. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren eta Aldundien arteko akordioa bultzatuko dugu.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

51. Bideko segurtasuna hobetzeko informazio-kanpainak. Zirkulazioak dauzkan arriskuei buruzko informazioa emateko kanpainak abiarazi nahi ditugu, besteak beste, azaltzeko zer egin errepidean animaliak hiltzea saihesteko eta kotxeetan seguru joateko.

SOFTWARE ASKEA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

PACMA - Alderdi Animalistatik teknologia berriei sarbidea izatea eta sareko neutrotasuna herritarrak informazioa jasotzeko duten eskubidea bermatzeko beharrezkoak direla uzte dugu. Informazioa maila guztietan bermatzeko alde gaude, internet barne.

Azken urteetan internetaren erabiltzaileen kontrako kriminizazio kanpaina bat eraman zen, zeintzuk, modu legal batean, internetko edukia jaisten zituztelako. Gobernuaren partetik bultzatutako propaganda eta gezurren emaitza "[Ley Sende-Wert](#)" izan zen. Ala ere, ez dira soilik notizia txarrak interneten erabiltzaileendako. Azken uztailan, Europar Jaurlaritzak ACTA hitzarmena gaitzetsi zuen gehiengo handi batekin. Hitzarmen honek, herritarrak ordezkatzeko dituzten instituzioen atzetik, komunikabideen adierazpen askatasunaren eta pribatasunaren kalte handia suposatzen du. Zorionez, eta Europar Jaurlaritzaren errefuxuari ezker, Europar Batasunaren barruan dauden Estatuetan ez da apligaria izango.

Herritarrak beraien gestioak modu elektronikoan geiten errazten dituzten pausoak ematearen aldekoak gara. Hori bai, teknologiak erabaki politikoetan parte hartzeko aprobeztatuak izan behar dira.

52. Alfabetatze teknologikoa (e-formazioa). Teknologia berriak ezagutza sustatzea ezinbestekoa dela deritzogu, integrazioa sozial baterako eta informazioaren sarrera bermatzeko erraminta oinarritzkoak direla uzte dugulako. Herritarrak teknologia berrietara sarrera izateko helburu duten kanpainak garatuko ditugu, hauek guztion serbitzuetara egon daitezen, bizi klalitate maila altuago eta gizarte justuago baten bidean aurrera pausuak emateko, guztion beharrak kontutan hartzen direlarik.

53. Software askearen erabilera eta promozioa. Eusko Jaurlaritzaren bitartez software askearen erabilera bultzatuko dugu posible denean, eta enpresen aldetik beraiek erabilera sustatuko dugu, hurrezteko neurri moduan.

54. Kultura askea eta teknologia berriak. Teknologia berriak herritan guztien serbitzuetara egon behar direla uzte dugu. Ohiko komunikabideek emoten dituzten informazioa komunikabide alternatiboek emoten dutenarekin alderatzeko duten bide gutxienetariko bat da. Hau kontutan izanik, Eusko Jaurlaritzak ezkatzen edo/eta ematen dituen dokumentu elektronikoetan estandar zabalak erabiltzea defendatzen dugu.

PARTIDO ANIMALISTA ***pacma***

HERRIALDE TXIROEN GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

PACMA - Alderdi Animalista guztionado bidezkoago den gizarte batengana aurrera pausuak emotea defendatzen du. Horregaitik, gure helburuetako bat maila mundialean bakea lortzea eta txirotasunarekin amaitzea da. Gainera, txirotasun gordinak animalien eskubideen aldeko mugimendua herrialde askotara zabltzea zailtzen du, izan ere, herrialde hauetako herritarrak egunero bizirik irautean zentratzen dituzte beraien esfortzuak.

Gaur egun nazioarteko erlazioak kriterio merkantilistengaitik mugitzen dira soilik. Txiroitutako herrialdeetan bizi diren miloika herritarren egoera oso larria da, aspektu etikoak kontutan izan gabe politikak garatzearen ondorioetariko bat izanik. Gure inguruan pairatzen dugun sufrimenduaren eta injustiziaren kontra soilik ez dugu burruratu behar, edozein motatako txirotasunaren kontra bazik, hau aurkitzen den lekuan, injustizia bat injustizia delako, non gertatzen den inporta barik. Arrazaoi honengaitik, mundu osoan zehar kooperzio eta altruismo loturak ezarriko ditugu. Mundu osoaren elikagai subirotasunaren alde gaude.

Askotan, garapen programak abeltzaintza sustatzeko bideratzen dira, eta hau onartezina deritzogu. Animalientzako suposatzen duen kalteaz gain, abeltzaintza elikagai industria efizientzia askoz gutxiago suposatzen duela kontu. Gaur egun, landutako lur soruen bi heren abeltzaintzako animaliak elikatzeke erabiltzen dira, baina soru hauek pertsonak elikatzeke erabili daitzeke, elikagai kantitate gehiago lortuz, espekulazio eta gozeteak izateko aukera zahiezten.

Bazterketa eta norberekeria gailentzeko alternatibak lortzeko aurrera pausuak egitearen alde gaude, hauetako printzipioak kontutan izanik:

- Konpetentziaren aurrean kooperazioa lehentasuna eman.
- Enpresen ardura etiko eta sozialak bultzatzea.
- Animalia gustien beharrak betetzea, beraien eskubide fundamentalak kontutan izanik.

Herrial txirotuen arazoei aurre egiteko nazioarteko erlazioetan eta elikagai politiken aldaketa sakonak behar direla badakigu. Ala ere, Euskal Herritik soluzioak lortzen laguntzen dituen neurriak hartu daitzeke:

55. Lankidetzaren politikaren koordinazioa eta plangintza. Urrengoko neurriak beharrezkoak dira:

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

- Herritarrak prozesuetan parte hartzea bermatzea.
- Euskal kooperazio batendako marku baten ezarpena, bikoiztasunekin eta efizientzia ezarekin amaitzeko, baita interes merkantilistekin amaitzeko.
- Elikagaiei sarrera izateko lan egiten duten kooperazio proiektuei lehentasuna eman, nekazaritza sustatzen duten programen bitartez, baita bazterketa soziala zahiezteko programei eta jasotzaileak diren herrialdeen indartze instituzionala bultzatzen dutenei.
- Kooperazio Funtza eta Garapenari Laguntzara (Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo - FOCAD) bideratutako aurrekontu nahiko bat.

56. Lankidetzaren programen ebaluazioa. Zoritzarrez, herrialde txiroak laguntzeko aitzakiarekin, mendebaldeko multinazionalen irabaziak soilik biltzen zituzten neurriak aurrera eramane ziren kasu batzuetan. Jokaera hauek milioika gizabanako kaltetu zituzten, eta herritar askok ONGtan zuten konfidantza galtzera eramane zuten. Egoera hauek zahiezteko lankidetzaren programen ebaluazioa bat egitea beharrezkoa da, eta hurrengokoak moduko neurri batzuk:

- Finantziatutako diren proiektuetan lortzea nahi diren gizarte garapenaren emaitzak gahitzea.
- Finantziatzen diren programen eta proiektuen informazioa osoaren argitaratzea, beraien jarraipen txostenekin eta kanpo ebaluazioekin.
- Ebaluazio erakunde independente baten sorrera.
- Laguntzak jaso eta bideratuko dituzten pertsonak aukeratzeko jarraituko diren irizpide konkretu eta objektiboen argitaratzea. Irizpide hauen hartean animalianganako errezpetua, eta gestioaren efikazia eta gardentasuna kontutan izango dira.

PARTIDO ANIMALISTA

pacma

EUSKAL HERRIAREN EGOERA POLITIKOA

Euskal Herriaren gaur egungo egoera politikoaren aurren urrengoko neurriak defendatzen ditugu.

57. Euskeraren babesa. Euskeraren aldeko ekimenak garatuko ditugu, herritar guztiek dohainik lengoai hau ikasteko eta hobeto ezagutzeko aukera izatea bermatzeko. Aldi berean, [Instituto Vasco Etxeparearen](#) lana defendatzen dugu, kanpoan eukera eta euskal kultura hedatzeko lan eginez, eta bere helburuak lortzeko beharrezko diru laguntzak emotes.

58. Batzorde baten sorkuntza. Euskal Herrian dagoen eztabaida politiko-sozial historikoa konpontzeko behar diren bideak bilatzeko lan egingo duen batzorde baten sorkuntza defendatzen dugu, gizabanako guztiak elkarbizitza baketzu eta errespetagarri bat lortzeko eta bake luze bat lortzeko helburuarekin. Batzorde honetatik adostutako proiektuak martxan jartzeko lan egingo du, beti ete herritarren iritzia eta beraien ekarpenak kontutan izanik, eta herriaren erabakiak errezpetatuz.